

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



Kaixo herrikide!!!

Hemen datorkigu urteko azken alea.

Azken hilabeteetan herrian zein herritik egin diren ekintzei buruzko informazioarekin gatoz. Udazken jaia, Euskararen eguna...

Oraingoan, herritar talde bat elkarrizketatu dugu 2017 urteari begira herrian egingo den

parte-hartze pruzesuaren prestaketan ari baita ira.

Gustatuko zaizuelakoan... on egin!

Ondo bukatu urtea eta hobeto hasi datorrena!

Lezkarri haize berrien bila

Herriko jaietako egitarauaren baitan, hiru abesbatzek kontzertu eder bat eskaini zuten eskolako aretoan: Astigarragako Aiztondo, Goizuetako Umore Ona eta herriko Lezkarri ganberako abesbatzek. Lehenengo aldiz Lezkarrik zuzendari berriaren gidaritzapean abestu zuen: Valentziako Nize Crespo zuzendaria, gaztea baina prestakuntza handikoa.

Emanaldi ostean, Lezkarrikoek beste bi abesbatzetako kideei afari bat eskaini zieten Din-Din elkarteetan. Girorik onenean ospatu zen eta afari erdian abeslari guztiak kalera irten ziren eta une horretan ezkututzen ari zen eguzkiari "Ilunabarra" abestia eskaini zioten.

Orain dela gutxi Lezkarrikoek ikasturte berriari hasiera eman diote, ilusioz beteriko egitasmoak aurrera eramateko asmoz.

Bestalde, garrantzia handia ematen diote abesbatza berritzeari, Igeldoko abesbatzak bizi-rik jarrai dezan. Zentzu horretan dei berezia luzatu nahi diete Igeldoko gazteei, abesbatzan sar daitezen eta entseguetan eta kontzertuetan parte har dezaten. Belarri pixka bat eta kantatzeko gogoia edukitzea nahikoa da horretarako.



ITSAS AURRETIK ESKERRAK

Urte amaiera iristen ari den honetan, Itsas Aurre elkarteak eskerrak eman nahi dizkie aste-
roko zozketan parte hartzen duten herritarrei.
Horri esker, aurten ere 8.000 euro bildu baititu
elkatea. Diru horrekin Donostiako udalaren
aurka jarritako helegitea galtzeak ekarri zituen
epaitegietako 3.000 euroko gastua ordaindu
ahal izan da. Beste 5.000 euroak abokatuaren
zorra gutxitzeko erabiliko dira. Hala ere, orain-
dik abokatuaren gastua 20.000 euro ingurukoa
dela aurreikusten dute elkartekoek, beraz,
datorren urterako asteroko zozketarekin jarrait-
zeko asmoa azaldu dute, pixkanaka abokatu-
aren gastua ordaindu ahal izateko.

OTSAILEAN ZOZKETA BEREZIA

Zozketa berezia egingo dute Itsas Aurre elkarteak eta Lizardi pelota-eskolak elkarlanean. Horrela bidez, urtean zehar izaten dituzten gastuei aurre egiteko diru sarrera bat lortzeko asmoa dute. Hiru sari bereziko boletoak presta-tu dituzte eta otsaila bitartean erosteko aukera izango da. Elkarlanaren aritzearen arrazoia, bakoitzak bere aldetik egin beharrean, indarrak batu eta sari bereziz osatutako zozketa egitea izan da.

Lan-eskaintza

Herri Kontseiluko idazkari-dinamizatzaile lan-postua hutsik geratu dela eta, lanaldi erdiko eskaintza zabalduko da urtarriletik aurrera.

Laster izango duzue xehetasun gehiagoren berri.

Auzolana eskutik eskura



Gainera, bertan, egurrezko sukalde eder bat eraiki zuten, lana bikain osatuz. Orain, nahi duenak azaldu eta belarrezko entsalada bikaina dastatu ahal izango du, baita buztinezko pudding paregabea ere!

Azkenik, eskola kanpoko paretak zuriz margotu ziren, aurrera begira, "Igeldoko Eskola" jarriko duen mural bat egiteko. Inor nahastu ez dadin...

Azkenik, tripak goxatzeko herriko plazan bazkari ederraz gozatu zuten.



Udazken festarekin bat eginik, Eskolako Guraso Elkarteak Auzolana antolatu zuen urriaren 23an. Bertan, eskolako ume, guraso, irakasle eta senitartekoak elkartu ziren, lanerako grian.

Batzuk puxkat zikindu ziren arren... lortu zuten plazako aulkiak kolore alai eta dotorez atontzea, nahiz eta hurrengo egunean baten batek ipurdia urdinez margotuta etxera eraman!

Beste batzuek, berriz, eskolako patioaren ondoko zelaian, egurrezko hesi paregabea osatu zuten; horrela, eskolak aisialdirako beste eremu batez gozatu ahal izango du hemendik aurrera.



Hasi da futbol txikia!

Bi talde osatu dira eskolan, txikiak eta haundiak eta gure umeek bikain ekin diote futbol txapelketari. Inguruko herri txikietako beste taldeen aurka jokatuko dituzte partiduak, gure herriaren izena han eta hemen zabalduz.

Gabonak elkarlanean

Dakizuenez, herriko aisialdi taldeak egoera zaila bizi du une honetan. Hori dela eta, bilera orokor bat antolatu zuen bere egoera herritarrei azaldu eta urteroko ekintzak aurrera ateratzeko laguntza eskatzeko asmoz.

Ekintza horien artean, orain ate-joka ditugun Gabonak daude eta, dagoeneko, herritar talde batek eskaini du bere laguntza urteroko entseguak, haurrentzako tailerrak, eskeak... antolatzeko.

Prestutasun horri esker, azaroaren 25ean egindako bileran, elkarlanean osatu zen Gabonetako egitaraua.

Aurrerantzean ere babes bera jasotzea espero dute... Kixmi Aisialdi Taldearen izenean, eskerrik asko zuten laguntza eskaini duzuen guztioi!



SORTUren birfundazio-prozesua Igeldon ere martxan

Pasa den ikasturtean Ezker Abertzaleak burututako Abian eztabaida-prozesuan, mugimendu osoa birfundatzeko beharra identifikatu zen. Horrekin batera, erreferentziako antolakunde baten beharrezana ere mahai gainean jarri zen. Horren konponbide izan asmoz jarri da martxan Sorturen birfundazioa. Helburu nagusia Ezker Abertzalearen proiektu politikoarekin bat egiten duten guztiak Sortun biltzea da eta kultura politiko eta antolaketa eredu berria finkatuko da.

Horretarako AKREDITAZIO-SISTEMA bat jarri da martxan, akreditatzen den orok izango du bozkatzeko, eztabaidatzeko nahiz emendakinak egiteko aukera. Interesa duten herritarrek urtarriaren 21era arte izango dute izena emateko aukera <https://partehartu.sortu.eus/login> helbidean.

Azaroaren 27an amaitu zen bozka emateko lehen epea, hau da, ponentziak eta zuzendaritza taldeak bozkatzeko epea. Bertan, Euskal Herri osoan akreditatuta daudenen %71k parte hartu zuen. Datuei dagokienez, Zohardia ponentziak %91,15eko babesja jaso du eta zuzendaritza taldeek %80etik gorakoa.

Igeldon ere birfundazio-prozesua martxan da, eta oraingoz 25 herritar akreditatu dira. Prozesua azaltzeko eta sakontzeko hainbat bilera ere egin dira, azaroaren 23an kultur etxean egin zena, esaterako.

Zuri esker ametsak egia bihurtzen



Kanpaina honen hasieran, jauzi berri bat emateko asmoa zutela esan zuten Errigora eki-

meneko sustatzaileek eta, emaitzak ikusita, beren helburua lortu dutela esan daiteke.

Euskal Herri osoan 14.000 saski inguru banatu ziren eta 175.000 euroko ekarpen ekonomikoa egin zaio Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari. Elikadura burujabetzaren bidean pauso berriak ematen ari dira: ekoizle sarea handitzen ari da, jada 20 dira Errigorekin elkarlanean ari diren ekoizleak, produktu berriei tokia egin zaie (aurten bi kutxa eskainiz) irabazi asmorik gabeko 700 gunez osatutako banaketa-sarea egonkortu da...

Igeldon ere izan da saskiak eskatzeko aukera, 24 saski izan ziren eskatutakoak, 12 zuri eta 12 beltz.



Intxaurrondo, Gros eta Igeldoren arteko herri kirol desafioa

Irailaren 10ean Intxaurrondoko jaietan sekulako herri-kirol desafioa burutu zen. Igeldo, Gros eta Intxaurrondotarren artean eginiko desafioak ikusmina sortu zuen eta hainbat eta hainbat herritar hurbildu ziren ikuskizunaz gozatzera.

Desafioan eginiko frogak hauek izan ziren: ergometroa, ingudea, trontza, dantza eta giza-proba. Intxaurrondo izan zen garaile 15 punturikin, Grosek 13 lortu zituen eta Igeldok 11.




GIRO POLITA UDAZKEN JAIAN

Urtero bezala, urriaren 21 eta 22an Udazken Jaia izan zen herrian. Aurten ere egitarau konpletoa osatu zuen antolatzaile batzordeak eta, oro har, balorazio ona egin dute. Nahiz eta larunbateko bertso-musikatuen saioa beste urteetan bezain ona ez izan, igandeko egitaraua ederra izan zen. Eguraldiak hasieran asko lagun-

du ez arren, azkenerako jende asko hurbildu zen azokara eta plazara. Herri-bazkaria bikaina eta arratsaldeko giroa ere ederra, talo eta erromeriarekin. Antolatzaile batzordeak eskerrak eman nahi dizkie bereziki jaiaren parte hartu eta lagundu zuten herritar eta elkarteei, guztien laguntzari esker atera baitzen jaia aurrera.



Sagarrondoa, Euskara eta eskola



Baionako Etxepare Lizeo berria sortu nahian dabilta, ikasleek batxilerra euskaraz bertan ikasi ahal izateko. Orain duten eraikina eskasa da eta barnetegi bat jarri nahi dute eraikin berrian. Ikasle gehienek, batxilerra euskaraz ikasi ahal izateko, aste osoa etxetik kanpo pasa behar izaten dute. Hori dela eta, sagarrondoak saltzeko ekimena jarri zuten martxan. 300.000 euro behar dituzte proiektua aurrera atera ahal izateko.

Igeldotik 50 sagarrondo erosi dira. Etxepare Lizeoak eskerrik beroenak bidali nahi izan dizkigute, gure eskuzabaltasunagatik.

Euskara denon ahotan

Aurten ere, abenduaren 2 eta 3an Euskararen Nazioarteko eguna ospatu dugu Igeldon. Ostiralean, ipuin-kontalariarekin eman zitzaion hasiera ospakizunari, ondoren film laburren emanaldia eta, eguna umore onez amaitzeko, pintxo-kantu poteoa. Larunbatean "Sexijentziak askatuz" antzerki-saioaz gozatzeko aukera izan zen.

Jende gutxik parte hartu du baina, hala ere, giro politean ibili ziren herritarrak euskara euren mihietan astinduz.





HERRITARREN IRITZI ETA BEHARRAK BILDU NAHI DITU HERRI KONTSEILUAK

Datorren urtearekin batera, herritarren iritzi eta beharrak jasotzeko parte-hartze prozesua martxan jarriko du Herri Kontseiluak. Urtarrilaren 15ean egingo da prozesuaren aurkezpena eta xehetasunei buruz hitz egiteko azken hilabeteetan zehar lanean aritu den lantaldearekin elkartu gara.

Taldea Herri Kontseiluko kide batzuek (Ainhoa Gorostidi, Maider Illarramendi, Iker zinkunegi eta Aitziber Alzua) eta herritar batzuek (Nerea Zinkunegi, Juan Dorronsororo, Idoia Aldekoa eta Larraitx Dorronsororo) osatzen dute.

Nondik atera zen parte-hartze prozesuaren ideia?

Urte hasieran egin zen Herri batzarrean, herrian partaidetza-prozesu bat bultzatzea beharrezkotzat jo zen eta Herri Kontseiluaren lanen artean lehentasun maila nagusia izatea erabaki zen. Horretarako, herritar talde bat elkartu eta lanean hasi zen.

Zergatik planteatu zuen Herri Kontseiluak parte-hartze prozesu bat martxan jartzea?

Herri batzarretik ateratako ideia nagusia izanik, nola edo hala heldu beharreko gaia zela ikusi genuen. Partaidetza-prozesuarekin herritarren beharrak eta iritziak jaso nahi ditugu. Ahalik eta herritar gehienengana iritsi nahi dugu, baita normalean herrian mugitzen ez direnengana ere. Horrek Herri Kontseiluari bere norabidea markatzen lagunduko dio. Erabakiak hartzeko garaian, nondik jo jakiteko garrantzitsua baita herritarren babesa izatea. Azken batean, gure helburu nagusia Igeldori buruzko diagnostiko bat egitea da, herritarren arazo eta behar nagusiak identifikatzea eta azken urteetan Herri Kontseiluak esku artean dituen zenbait gai jakinen gainean herritarrekin eztabaidatzea.

Nola gauzatuko da parte-hartze prozesua?

Bi fase edo atal izango ditu. Batetik, 16 urteik gorako herritar guztiei zuzendutako galdeketa, informazio zabal eta anitza lortzeko. Eta bestetik, jasotzen dugun informazioa eztabaida taldeetara eramango da, herritarrek taldean hausnartu eta lanketa egin dezaten. Eztabaida talde horien osaera askotarikoa izango da, herrian egon daitezkeen iritzi desberdinak jaso ahal izateko (adin, zonalde, sexu... desberdinek ordezkapena izatea da gure helburua). Eztabaida taldeak galdeketaren emaitzen arabera izango badira ere, hiru gai aurreikusten ditugu: parte-hartzea eta antolaketa, garapen ekonomikoa eta eskola zaharraren egituraketa.

Galdeketarekin hasteko asmoa duzue, nola pentsatu duzue hori aurrera eramatea?

Galdeketa igeldotar guztiei zabaldu nahi diegunez, fase desberdinetan egitea erabaki dugu. Herria zonalde desberdinetan banatu dugu eta

bakoitzean bi hilabetez gauzatuko dugu banaketa.

Galdeketaren banaketa aurrera eramateko bi bide desberdin erabiliko ditugu: batzuetan gu zuzenean herritarrengana hurbilduko gara galdeketa emateko edo gure laguntzarekin burutu dezaten eta, beste batzuetan, bitartekariak (ezagunak, senideak...) erabiliko ditugu galdeketak helarazteko. Mota askotako 47 galdez osatutako galdeketa prestatu dugu.

Zer esango ziniakete Igeldoko herritarrei?

Galdeketa guztiz anonimoa izango da eta emaitzen informazioa gordetzerakoan ez da izen propiorik erabiliko. Gure asmoa, lehen aipatu bezala, herritarren iritzia jakitea da eta horretarako, pentsatzen dutena esateko askatasun osoa eman nahi diegu. Hori da behar duguna: pentsatzen eta sentitzen dutena jasotzea.

Galdeketa erantzuteko garaian, edozein zalantza edo zailtasun izanez gero, lasai adierazi diezaiokete galdetzaileari edo galdeketa pasa dien kontaktuari. Beraz, animatu eta parte hartu, denen iritzia baliagarria baita!!!

Bestarik baduzue aipatzeko?

Prozesuari hasiera emateko informazio-bilera berezi bat antolatuko dugula aipatu nahi genuke. Bertan, prozesua bera, galdetegiaren egutegia eta etxez etxe galdeketak egiten arituko den lantaldea aurkeztuko dira. Bilera URTARRILAREN 15ean (igandea) izango da, goizeko 11:30ean Kultur Etxean.

Bestalde, parte-hartze prozesuari buruzko edozein zalantza, interes edo ekarpen egiteko, Herri Kontseiluko kideekin harremanetan jarri edo helbide elektronikoa honetara idatzi: igeldogaldetegia@gmail.com





AGENDA

Abenduak 16	Eskeko 2. ensaioa, 18.30ean Kultur etxean
Abenduak 24	Gabon eskea, 14.00etan herriko plazan. Amaitzean, Olentzeroren etorrera!
Abenduak 31	Gabon eskea, 14.00etan herriko plazan
Urtarrilak 7	Gabon eskeko afaria
Urtarrilak 8	Lezkarri abesbatzaren kontzertua, 12.30ean herrian
Urtarrilak 14	Presoen aldeko manifa Bilbon (autobusa Igeldotik)

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo alea otsaila-martxoan izango da (igeldokoorria@gmail.com)



**IGELDOKO
HERRI
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea **Donostiako Udala**